



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2022ko urtarrilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko urtarrilaren 4an, zortziak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeke gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

**Hor zirenak** : AYÇAGUER Elorri, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IDIART Claudine, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, GOICOCHEA Iñaki, HEGUY Antton, IRIART Jean Claude.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : JORAJURIA Ramuntxo

Deialdiaren eguna : 2021eko abenduaren 22a

Afitxatze eguna : 2021eko abenduaren 22a

### **4.ERABAKIA JENDE KONDAKETA KARI IRAUNKORRAK EZ DIREN BI LANPOSTUREN SORTZEA GAITZAT ZUEN ERABAKIAREN ALDAKETA**

Nomenklatura : 4.2

Auzapezak oroitarazten du jende kondaketa misioaren segurtatzeko, Herriko kontseiluak denbora osoko bi kondatzaile lan postu ez egonkor sortu zirela 2021eko azaroaren 2ko erabakiari esker. SMICaren goratzea segitzeko, zehazten du erabaki horren aldatzea beharrezkoa dela. Lan postuak sortuak litzeke 2022ko urtarrilaren 6tik, 2022ko otsailaren 19a arteko epearentzat.

Lan postu horiek C mailakoak dira.

Lan postu horiek kontratupeko langile batzuek bete lezazkete, denbora bateko lan zama baten emendatzearen ondorioz, gehienez hamabi hilabeterako, hemezortzi hilabeteko epe segitu bakoitz, kontratupeko langile baten hartzea ahalbidetzen duen 1984ko urtarrilaren 26ko Lurraldeko Funtzio Publikoaren legedia aldatuaren 3-1º artikulua dizkion neurriak errespetatuz.

Funtzio publikoko C1 sailako, 1. mailako ordainsariei doazkien lansaria ukan lezazkete lan postu horiek, erran nahi baitu, gaur, funtzio publikoko 371 indizea zergak kanpo. Auzapezak oroitarazten du baita ere herriko lurraldean usu mugitu behar duten lurraldeko langileek, beren funtzioen segurtatzeko, prezio finkoko ordainsari bat ukan dezaketela beren auto pertsonala erabiltzen dutenean, bide horren egiteko. Hau, lurraldeko elkargo eta etxe publikoetako langileen mugimenduek ondorioztatu gastuen pagatzeko kondizio eta neurriak finkatzen dituen 2001eko uztailaren 19ko 2001-654 erabaki aldatuan zehaztua da. Araudi

horren aplikatzea proposatzen du kondatzaileentzat, beren auto pertsonala erabiltzen dutelako jende kondaketaren egiteko. Oraiko arteko zama gehiena, 210€tan finkatua da. Auzapezaren xehetasun gehigarriak entzunik eta elgarrekin eztabaidaturik,

**ERABAKITZEN DU :**

- bi denbora osoko jende kondatzaile lan postu ez egonkorren sortzea, 2022ko urtarrilaren 6tik, 2022ko otsailaren 19ra doan epearentzat, bataz beste astero 35 oreneko lan zamari doakiona.
- lan postu horiek, funtzio publikoko C1 sailako 1. mailako ordainsariei doazkien lansaria ukan lezaketela, erran nahi baitu, gaur, funtzio publikoko 370 indizea zergak kanpo.
- langile kondatzaileek mugitze funtzioentzat dagokien ordainsaria finkoa, 210€koa, eskuratuko dutela,

**AHALBIDETZEN DU** Auzapeza erabaki honi gehigarrietan loturiko lan kontratua izenpetzera,

**ZEHAZTEN DU** behar diren diru zamak aurreikusiak direla proiektu horren aurrekonduarentzat.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 10

Balizko boz kopurua : 10

ALDE : 10

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko urtarrilaren 4an,  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2022/01/04an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/01/04an.

